

FAMILIAREN ATSEDENERAKO PROGRAMAREN BIDEZ MENDEKOTASUNA- DUTEN PERTSONEI ESPEZIEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI OINARRI ARAUTZAILEAK, ETA 2025ERAKO DEIALDIA EGITEA

12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, 1. Artikuluan ezartzen duenez, Legearen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan gizarte-zerbitzuen prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea sustatzea eta bermatzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsal bat arautuz eta antolatuz.

Era berean, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak 1. Artikuluan ezartzen duenez, lege honen xedea da herritarrek autonomia pertsonala eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko duten eskubide subjektiboa gauzatzean berdintasuna bermatuko duten oinarritzko baldintzak arautzea, legeetan ezarritakoaren arabera, Autnomiaren Aldeko eta mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sisema sortuz, Herri Administrazio guztien lankidetzarekin eta parte-hartzearekin, eta Estatuko Administrazio Orokorrak Espainiako Estatuko edozein lurraldetan herritar gutzientzako eskubideen gutxieneko eduki komuna bermatuz.

Beraz, Urduñako Udalak, Gizarte Ongizateko bere arloaren bitartez, gauzazko laguntzen deialdi honen bidez, Aurrera egiten jarraitu nahi du familiak eta inoren laguntza behar duten pertsonak uztartzeko bidean, jarduera berriak sustatuz, hala nola zaintzaile ez-profesionalentzako familia-atseden programa hau, mendetasun-egoeran dagoen pertsonari etxean bertan arreta eta zaintza zerbitzuak emateko laguntza emanez.

Horrela, zaintzaileei laguntza ematen diegu, eta haien bizitza soziala, familiakoa eta aisialdikoa mantentzen laguntzen diegu; aldi berean, inplikaturako persona guztien bizi-kalitatea hobetzen dugu.

1. artikulua.- Dirulaguntzaren helburua

1.- Oinarri hauek honako hauxe dute helburu: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren bosgarren xedapen gehigarrian eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, II eta III. Mailako mendetasun-egoeran dauden pertsonentzako eta haien zaintzaile ez-profesionalentzako laguntzak, etxeko familia-atsedeneko programaren barruan, bai eta haien deialdia egitea ere.

2. Profesionalak ez diren zaintzaileen bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko erraztasunak ematea da helburua, honako modalitate honen bidez astelehenetik igandera, jaiegunak barne, atsedenaldia hartzeko aukera izan dezaten:

a) Etxean bertan atsedenaldia hartzea. Kasu honetan, Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Mendetasunari Arreta Emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen babespean, Bizkaiko Foru Aldundiak aitortutako II. edo III. mailakoak diren mendekoek etxean bertan jasotako unean uneko arreta integral eta zuzena finantzatzen da.

3.- Gauzazko laguntza hauetan, bale trukagarri batzuk ematen dira, profesional batek mendetasuna duen senidea zaindu dezan, profesionala ez den zaintzaileak atsedean hartzen duen bitartean. 2024ko ekitaldian erabili beharko dira.

2. artikulua.- Aurrekontu-partida

Indarrean dagoen aurrekontu 2311/22631 partidan 14.000 euroko aurrekontu-zuzkidura dago.

3. artikulua.- Onuradunak

Dirulaguntzaren onuradun izan daitezke II. eta III. Mailako mendetasun-egoeran dauden pertsonak, baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiak, abenduaren 14ko 39/2006 Legearen babespean (autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa), 2025eko urtarrilaren 1ean familia-ingurunean zaintzeko aitortutako prestazio ekonomikoa jasotzen badute.

4. artikulua.- Dirulaguntza eskuratzeko eskakizunak

1. Mendekotasun-egoeran dagoen pertsona dirulaguntzaren onuradun izan dadin, honako baldintza hauek guztiak bete beharko ditu:
 - a) Urduñako udalerrian bizi dela 2025eko urtarrilaren 1ean.
 - b) Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Mendetasunari Arreta Emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen babespean, 2024ko urtarrilaren 31n Bizkaiko Foru Aldundiak aitortutako II. edo III. mailako mendetasuna edukitzea zaindu beharreko pertsonak.
 - c) 2025eko urtarrilaren 1ean Bizkaiko Foru Aldundiak familia-ingurunean zaintzeko aitortutako prestazio ekonomikoaren onuradun izatea.
 - d) Laguntzak lortzeko inolako desgaitasunik ez izatea.
 - e) Urduñako Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.
 - f) Egunean izatea dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arabera.

f)

2. Horrez gain, dirulaguntzaren onuradun izateko, zaintzaileek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan zehaztutako eskakizunak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen denerako.

5. artikulua.- Laguntzaren mota eta intentsitatea

1.- Gauzazko laguntza hauetan, bale trukagarri batzuk ematen dira, mendekoek euren etxean jarraitu dezaten eta haien ohiko zaintzaileak ordu batzuk eduki ditzan, atsedean hartzeko edo laneko betebeharrak, arlo pertsonalekoak eta erantzukizun familiarak bateragarri egitean sortutako unean uneko premiak estaltzeko.

2.- Bale bakoitzaren balioa benetako ordubetekoa (60 minutu) izango da.

3.- Eskatzaile bakoitzari eman ahal zaion gauzazko gehieneko laguntza ezingo da urteko 50 ordutik gorakoa izan, eta honako honexen arabera zehaztuko da:

- Aurkeztutako eskabideen kopurua, betiere, oinarri hauetan zehaztutako eskakizunak betetzen badituzte.
- Interesdunen mendetasun-maila. Bertan, III. maila aitortuta dutenek II. maila aitortuta dutenek baino heren bat ordu gehiago jasoko dituzte.

6. artikulua.- Bateragarritasuna

Deialdi honen helburu diren dirulaguntzak gauzazko laguntzak izango direnez, ezin izango dira helburu bera duten beste laguntza eta dirulaguntza batzuekin bateratu.

7. artikulua.- Aurkeztu beharreko agiriak

1.- I. Eranskina (eskabidea) eta II. eranskina (hirugarren interesdunen datuak egiaztatzea) behar bezala beteta aurkeztu beharko dira.

2.- Interesdunek aurkezten dituzten agirien egiazkotasunaren gaineko erantzukizuna izango dute.

Beraz, honako hauxe adieraziko da I. eranskinean:

a) Agindu honen babespean eskatutakoaren helburu bererako emandako laguntza guztiak aipatzea.

- b) Eskabidean eta eskabidearekin batera aurkeztutako agirietan emandako datu guztiak egiazkoak izatea.
- c) Laguntzak lortzeko inolako desgaikuntzaren eraginpean ez egotea.
- d) Urduñako Udalarekiko zerga-betebeharren betearazpena egunean edukitzea.
- e) Dirulaguntzen itzulketagatiko betebeharren ordainketa egunean edukitzea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arabera.
- f) Eskatzaileak behar besteko konpromisoa hartzea, dirulaguntza hau jasotzen duen bitartean eskakizun horiek betetzen jarraitzeko eta, berehala, adierazpen honen datatik aurrera beste administrazio publiko batzuetan edo nazio-mailako edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuetan eskatzen edota lortzen dituen laguntza guztien berri emateko.

Eskabidea aurkeztean, prozedura honen arauak onartzen dira.

3. Prozedura hau izapidetzeko, honako datu hauek kontsultatuko dira ofizioz:

- a) Biztanleen udal-eroldaren datuak.
- b) Bizkaiko Foru Aldundiak emandako mendekotasun-mailari buruzko datuak.
- c) Bizkaiko Foru Aldundial familia-inguruneko zainketetarako aitortutako prestazio ekonomikoaren kobrantzari buruzko datuak.

Interesdunak administrazio publikoek egindako datuen edo agirien kontsultaren aurka badaude, I. eranskinean eta, hala badagokio, II. eranskinean horretarako atondutako laukian adierazi beharko dute euren berariazko aurkakotasuna, eta kasuan kasuko agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Ezarri beharreko arautegiaren arabera beharrezkoa denean, interesdunaren berariazko baimena eskatuko da kontsulta egiteko.

Salbuespenez, zirkunstantziaren batek aipatutako datuak lortzea eragozten badu, interesdunei eskatu ahal izango zaie dagozkien dokumentuak aurkezteko.

8. artikulua.- Eskabideen aurkezpena eta epeak

Deialdia Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratuko da, eta eskaerak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, oinarri arautzaileak eta deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskabideak aipatutako epetik kanpo aurkezten badira, eskabide horiek ezetsi eta izapide gehiago egin gabe artxibatuko dira.

Eskabidea Urduñako Udaleko egoitza elektronikoaren bidez (www.urduna.com/trámites) aurkeztu ahal izango da; edo, aurrez aurre, Udaleko Sarrera Erregistroan (Kale Zaharra 2-4), 9:00etatik 13:30era, astelehenetik ostiralera.

Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan legearen arabera aurreikusitako gainerako lekuetan aurkeztu ahal izango da eskabidea.

Epeko azken eguna laneguna ez denean, lehenengo lanegunera arte luzatuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 30.5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Eskabidea behar bezala beteta egongo ez balitz edo daturen bat edo aipatutako agiriren bat aurkeztu ez balitz, 10 laneguneko epean gabeziak zuzendu ditzala eskatuko zaio eskatzaileari. Gainera, hori egin ezean eskabidea ezetsiko zaiola adieraziko zaio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan zehaztutako baldintzen arabera ebazpena eman ostean.

Kasu zehatz bakoitzean, Urduñako Udalak egokitzen jotzen duen beste edozein agiri osagarri eskatu ahal izango dio eskatzaileari. Hala badagokio, eskatzaileak derrigorrean aurkeztu beharko du, bere eskabidea izapidetzea nahi badu. Eskatzaile horrek agiriak zehaztutako epean aurkeztuko ez balitu, eskabidea ezetsiko zaio, eta artxibatu egingo da kasuan kasuko ebazpena eman ondoren.

9. artikulua.- Azterketa, ebazpena eta organo eskudunak

Eskabide guztiak jasotakoan, Gizarte Politiken Saila prozedurak bideratzen hasiko da, eta, beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak egingo ditu ofizioz, ebazpen-proposamena egiteko orduan kontuan hartu beharreko datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko. Horrez gain, eskatzaileari eskatu ahal izango dio prozedura izapidetzeko eta ebazteko beharrezkoak diren datu, agiri osagarri eta argibide guztiak aurkeztu ditzala.

Edozein kasutan, ez dira deialdian zehaztutako epetik kanpo aurkeztzen diren eskabideak izapidetuko, eskabideok ez onartzeko ebazpena emango da eta artxibatu egingo dira.

Zerbitzua emateko edo ukatzeko ebazpena Alkatetzaren Dekretuaren bidez emango da, eta, hala badagokio, zerbitzua zergatik ukatu den adierazi beharko da bertan. Bestela, ebazpena aldekoa bada, laguntzaren baldintzak zehaztuko dira bertan, hau da, esleitutako orduak.

Zerbitzua eman edo ukatu egin dela adierazten duen ebazpena emateko eta jakinarazteko epea sei hilekoa izango da gehienez ere, izapidetzeko asmoz eskabidea organo eskudunaren erregistroan sartu osteko hurrengo egunetik hasita.

Epe hori igarotakoan berariazko ebazpenik eta jakinarazpenik ez balego, eskabidea isiltasun administratiboagatik ezetsi dela ulertuko da. Nolanahi ere, berariazko ebazpena eman ahal izango da geroago.

Oinarri hauen babespean ematen diren berariazko edo ustezko ebazpenek bide administratiboa agortuko dute, eta haien aurkako errekurtsio hauek aurkeztu ahal izango dira: batetik, aukerako berraztertze-errekurtsioa, ebazpenak eman zituen organo beraren aurrean, ebazpena jakinarazi osteko hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean, berariazkoa izango balitz, edo edozein unetan, ustezko egintza gertatu osteko hurrengo egunetik aurrera; eta, bestetik, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, kasuan kasuko Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean, jakinarazi osteko hurrengo egunetik hasita bi hileko epean, berariazkoa izango balitz, edo sei hileko epean, ustezko egintza gertatu osteko hurrengo egunetik aurrera.

Berraztertze errekurtsioa aurkeztuz gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu harik eta berariaz ebazten den arte edo errekurtsio horren ustezko ezespena gertatzen den arte.

10. artikulua.- Kontrola

Organo emakida-emaileak egokitzen jotzen dituen kontrol administratiboak eta ikuskaritzak egin ahal izango ditu, gauzazko laguntza jasotzeko eskakizunak bete egiten direla egiaztatu ahal izateko.

Hona hemen onuradunaren betebeharrak:

- Organo eskudunei behar besteko informazio guztia ematea, esleitutako laguntzaren helburua bete egiten dela ziurtatzeko.
- Laguntza bera emandako helbururako erabiltzea.
- Laguntza emateko orduan kontuan hartu ziren baldintzetan gertatutako edozein aldaketaren berri ematea.

11. artikulua.- Zerbitzuaren jardunbidea

Gauzazko laguntza eman egin dela adierazten duen ebazpenaren jakinarazpenarekin batera, esleitutako orduen baleak bidaliko dira, baita zerbitzua eskainiko duen enpresaren telefono-zenbakia eta harremanetarako lagunaren izena ere.

Gauzazko laguntza eman egin dela adierazten duen ebazpenaren jakinarazpena jasotzen denetik, familien atsedenaldirako zerbitzua erabiltzen hasi ahal izango da 2024ko abenduaren 31ra arte.

Onuradunak zuzenean jarriko dira harremanetan zerbitzua ematen duen erakundearekin, zerbitzua zer egunetan eta ordutegitan jaso nahi duten zehazteko.

Bale bakoitzaren balioa benetako ordubeteko zerbitzuko (60 minutu) izango denez, ezin izango da iraupen laburragoko zerbitzurik eskaini.

Baleak astelehenetik igandera, jaiegunak barne, erabili ahal izango dira 8:00etatik 22:00etara.

Etxean atsedeen hartzeko zerbitzu bakoitza amaitutakoan, zerbitzu hori ematen duen enpresari edo pertsonari emango zaizkio jasotako laguntza-orduei dagozkien baleak, eta zerbitzuaren eguna nahiz orduak adieraziko dira bertan.

12. Artikulua.- Jarraipena eta gainbegiratzea.

Gizarte Politiken Arloak egingo du zerbitzuaren garapena jarraipena eta ikuskapena, zerbitzuaren jarraitutasuna, aldaketa edo ezeztatena baloratzuz.

Etxeke atsedenaldia honako kasu hauetan eten ahal izango da:

- Zerbitzuaren mendeko pertsonak edo haren zaintzaileak prestazioaren ohiko funtzionamendua oztoka dezaketen ekintzak gauzatzen dituztenean.
- Mendekotasuna duen pertsonak eta/edo zaintzaileak zerbitzua ematen duten langileekiko errespetu-faltak daudenean.

Gizarte Ongizateko arloak laguntza honen onuradunari jakinaraziko dio, entzun ondoren, zerbitzua eten dela, eta ohartarazteko neurri gisa 4 txartel itzultzea ezarriko da hilabeteko epean, hala erabakitzen duen ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Adierazitako epean itzultzen ez bada, edo eteta eragin duen egoera zuzentzen ez bada, oinarri arautzaile hauen 13. Artikuluan ezarritakoaren arabera jokatu da.

13. artikulua.- Laguntza indarrrik gabe uztea eta itzultzea

1.- Besteak beste, etxean atsedeen hartzeko zerbitzua honako arrazoren batengatik utzi ahal izango da indarrrik gabe:

- a) Laguntza honetako onuradunak eskatzen duelako.
 - b) Mendekoa hil delako.
 - c) Egoitza-zentro batera eraman dutelako egonaldi iraunkorrerako.
- Laguntza emateko kontuan hartu zen premia-egoera desagertu delako.

- d) Helburua bete ez delako edo laguntzaren emakidaren oinarri den jokabidea eta horren ondorioz sortutako betebeharrak onartu ez direlako justifikatutako arrazoirik gabe.
- e) Mendekoaren edo zaintzailearen ohiko jokabidearen ondorioz, zerbitzuko berezko zereginak egin ezin direlako.
- f) Dirulaguntza lortzeko, horretarako beharrezkoak ziren baldintzak faltatu direlako edo eragotzi egingo zuten baldintzak ezkutatu direlako.
- g) Egiaztapenerako eta kontrolerako jarduketei aurka egin zaielako, aitzakiak jarri zaizkielako, oztopatu egin direlako edo uko egin zaielako.

2. a), b), c) eta d) idatz-zatietan zehaztutako kasuetan, gauzazko laguntza **indarrrik gabe uzteko** espedientea irekiko da.

Gauzazko laguntza indarrrik gabe uzteko espedientea ofizios edo onuradunak eskatuta ireki ahal izango da, idatz-zati honetan aurretiaz azaldutako edozein inguruabarren berri ematen duenean.

Gizarte Politiken Sailari idatz-zati honetan aurreikusitako edozein inguruabarren berri emateko gehieneko epea 15 egunekoa izango da gertatzen direnetik hasita. Epe hori bete ezean, itzultzeko espedientea izapidetuko da, artikuluko honen 3. idatz-zatian xedatutakoaren arabera.

Gauzazko laguntza indarrrik gabe uzteko ebazpena Alkatetzaren Dekretuaren bidez emango da, Gizarte Politiken Sailaren txostena jaso ondoren. Bertan, hain zuzen ere, laguntzako onuradunak erabili ez dituen baleak itzultzeko daukan gehieneko epea zein den adierazi beharko da.

Itzultzeko gehieneko epea hilabetekoa izango da, ebazpena jakinarazi osteko hurrengo egunetik hasita.

Dirulaguntza indarrrik gabe uzteko espedientea izapidetzean, onuradunak entzuna izateko eta bere jarduketaren defentsan egokitzat jotzen dituen alegazio guztiak aurkezteko duen eskubidea bermatuko da, edonola ere.

3.- e), f), g) eta h) idatz-zatietan azaldutako kasuetan, gauzazko laguntza **indarrrik gabe uzteko eta itzultzeko** espedientea irekiko da ofizios.

Gauzazko laguntza ezeztatzeko eta itzultzeko ebazpena Alkatetzaren Dekretu bidez hartuko da, Gizarte Ongizateko Arloak txostena egin ondoren, eta ordaindu beharreko zenbatekoa eta ordaintzeko epea adierazita. Ordaindu beharreko kostua orain arte jasotako zerbitzuaren kostu osoari dagokiona izango da. Halaber, ordaintzeko epea adieraziko da, baita erabili gabeko txartelak itzultzeko epea ere, halakorik balego.

Laguntzako onuradunak aurretik adierazitako zenbatekoa ordaintzeko eta erabili ez dituen baleak itzultzeko daukan gehieneko epea hilabete, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera. Bete ezean, premiamendu-bidetik kobratuko da.

2. Dirulaguntza indarrrik gabe uzteko eta itzultzeko espedientea izapidetzean, onuradunak entzuna izateko eta bere jarduketaren defentsan egokitzat jotzen dituen alegazio guztiak aurkezteko duen eskubidea bermatuko da, edonola ere.

3. Nolanahi ere, gauzatutako zerbitzuaren balioari dagozkion zenbatekoak eskatzean, berandutza-interesak sortuko dira zerbitzua gauzatu zenetik diru-sarreraren jatorria zein den erabakitzen den arte.

Ordaindu beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira, eta lege zehaztutako eskumenen eta prozeduren arabera kobratu ahal izango dira.

14. artikulua.- Laguntzaren itzulketa

2026ko urtarrilaren 15a baino lehen, espezetan emandako laguntzen onuradunek Gizarte Ongizateko Arloari itzuli beharko dizkiote 2025eko abenduaren 31rako erabili ez dituzten baleak, eta zergatik ez dituzten erabili azaldu beharko diote.

Gizarte Ongizateko Arloak itzulketa-espedientea irekitzeko proposamena egingo du, dagokion kasuetan.

15. artikulua.- Zabalkundea

Oinarri hauek eta deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, baita udalaren webgunean (www.urduña.com), udaletxeko iragarki-tauletan eta ZIKOINA udal-aldizkarian ere, une oro ahalik eta zabalkunde handienaren bila.

16. artikulua.- Gardentasuna eta gobernu ona

1. Gardentasunari eta Gobernu Onari buruzko urtarrilaren 18ko 1/2016 Legearen 17.3. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera, agindu honen babespean esleitutako laguntzak ez dira argitaratuko, arau horietan aurreikusitako salbuespen-kasuetakoa da-eta.

2. Gardentasunari eta Gobernu Onari buruzko urtarrilaren 18ko 1/2016 Legearen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntzetako onuradunak diren pertsona fisiko eta juridikoek beharrezko informazio guztia derrigorrean eman beharko diote administrazioari, organismoari edo besteak beste urtarrilaren 18ko 1/2016 Legearen 3.1. artikuluan aurreikusitako erakundeari, haren loturapean daudenean, betiere, aldez aurretik eskatzen badie, aipatutako legearen I. tituluan aurreikusitako betebeharrak betetzeko

17. artikulua.- Impugnazioa

Deialdi hau onartzen duen ebazpenak bide administratiboa agortuko du. Dena dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta, txandaka, Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera, horren aurkako aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da hilabeteko epean, egintza ebatzi zuen organo beraren aurrean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Bizkaiko Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean, bi hileko epean, ebazpen hau argitaratu osteko hurrengo egunetik hasita. Aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztuz gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu harik eta berariaz ebazten den arte edo isiltasunagatik ezespena gertatzen den arte.

Nolanahi ere, egokitzen jotzen den beste edozein errekurtso aurkeztu ahal izango da.

18. artikulua.- Ezarri beharreko arautegia

Oinarri hauetan aurreikusten ez den guztia honako hauexetan xedatutakoaren arabera interpretatuko da: Urduñako Udalean dirulaguntzak esleitzeko asmoz onartutako eta 2011ko irailaren 21eko 181. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Oinarri Orokorren Ordenantza Arautzailea; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Dirulaguntzei buruzko Araudi Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; eta ezarri beharreko gainerako arauak.

AZKEN XEDAPENA

Oinarri hauek aurtengo abenduaren 31ra arte egongo dira indarrean, eta gehieneko zenbatekoa ekitaldi honetarako onartutakoa izango da.

BIGARRENA.- Deialdi hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jendeak jakin dezan eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuko Teknikaria